

ESKEMAK, LABURPENAK, BURU-MAPAK.... ZERTARAKO? IRAKURRIAREN ULERMENA EBALUATZEKO

NOLA EGIN? KONTROL-ORRIAK IKASLEEI LAGUNTZEKO

Ulertzen laguntzeko estrategiak landu eta aplikatu baditugu irakurri aurretik eta irakurri bitartean faseetan, testua irakurritakoan oso garrantzitsua da ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi eta horien arteko hierarkia ezarriko duten eskemak, laburpenak edo buru-mapak erabiltzea, ikasleek irakurritakoa berrantola dezaten.

Laburpen, eskema edo buru-mapa onak egitea zaila da; horregatik, testu-genero horietan trebatu behar ditugu ikasleak. Giltza ez da eskema, laburpen edo buru-mapa asko egitea, baizik eta nola egin behar diren irakastea.

Gogoratu: irakurri aurretik eta irakurri bitartean hainbat jarduera egin behar izan dira geroago ulermen arazorik ez izateko:

- Irakurri eta ulertu (hitzak, esaldi bereziak...) Testua ulertzeko laguntzak prestatu beharko lituzke irakasleak (aurre-ezagutzak azaleratu, adibideak, bideoak, irudiak...)
- Testuaren formatua kontuan izan.
- Testu-generoaren ezaugarriak kontuan izan
- Izenburua eta azpi-izenburuak kontuan izan behar dira, izan ere, testuaren atalak markatzen dituzte, eta ideia nagusiak bereizteko erabilgarriak dira.

Eskemak, laburpenak eta buru-mapak, besteak beste, irakurritakoa ulertu dela egiaztatze oso baliabide egokiak dira. Baina zer egiten dugu irakurleok eskema, laburpen edo buru-mapa onak egiteko?

ESKEMA

Eskema objektiboa da; testuaren egitura islatzen du.

Eskemaren funtzio nagusia hauxe da: testuaren paragrafoen eta egitura nagusiaren arteko lotura ezartzea. Horrenbestez, testuak eskema bat bakarra izango du. Eskema askoren artean egon daitekeen aldagai bakarra zehaztasun maila da .

Nola egin eskema?

- Testuaren **formatua** kontuan izan, eskema egituratzeko laguntza eta 'pista' asko agertzen dira eta.
- **Izenburua** eta **azpi-izenburuak** kontuan izan (azalpen-testuak ulertzeko baliagarriak dira; beste testu motak ulertzeko ez hainbeste).
- **Indize grafikoak** eta haien erabilera kontuan izan.
- **Paragrafo** bakoitzak adierazten duen **ideia** islatu eta laburtu.
- Paragrafo bakoitza **izen baten bidez adierazi**, esate baterako, *Ezaugarriak, Historia...*
- Izen horren pean dagoen ideia nagusia islatu, esaldi baten bidez.
- Adibideak, azalpenak eta abar identifikatu eta **baztertu**.
- **Aukeratutako izenak eta ideia trinkotuak ordenatu** eskeman. Horretarako, kontuan izan testuan duten ordena eta hierarkia (garrantzia).
- Eskeman lehen mailako ideiak eta bigarren mailakoak jaso eta horien arteko hierarkia (garrantziaren maila) grafikoki adierazi.
- Ez kopian ideiak literalki eta ez egin baloraziorik ezta adierazi iritzi pertsonalik ere.
- Egiaztatu ideien arteko **hierarkia** eskeman ikusten dela. Horretarako, tabulazioak eta indize grafikoak erabili.

TESTUAREN ESKEMA EGITEKO KONTROL-ORRIA

- Testuaren formatua kontuan izan.
- Testuaren egiturari jarraiki.
- Adierazi paragrafo bakoitzak jasotzen duen informazioa izen baten bidez.
- Informazio hori osatu ahalik eta modurik trinkoenean.
- Ez adierazi beharrezkoak ez diren datuak (adibideak, zenbakiak...).
- Ez eman baloraziorik ezta iritzi pertsonalik ere.
- Ez kopian literalki testuaren esaldiak.
- Eskeman lehen mailako eta bigarren mailako ideiak hierarkizatu egin behar dira
- Indize grafikoak erabili (buletak, zenbakiak, tabuladoreak..) garrantzia markatzeko.

LABURPENEA

Gogoratu: irakurri aurretik eta irakurri bitartean hainbat jarduera egin behar dira geroago ulermen arazorik ez izateko:

- Irakurri eta ulertu (hitzak, esaldi bereziak...)
- Testua ulertzeko laguntzak prestatu beharko lituzke irakasleak (aurrezagutzak azaleratu, adibideak, bideoak, irudiak...)
- testuaren formatua kontuan izan.
- Testu generoen ezaugarriak kontuan izan
- Izenburua eta azpi-izenburuak kontuan izan behar dira, izan ere, testuaren atalak markatzen dituzte, eta ideia nagusiak bereizteko erabilgarriak dira.

Ezaugarriak

Laburpenaren egitura ez da eskemarena bezain zorrotza. Testu baten laburpen desberdinak egitea posible da, baina honek ez du esan nahi laburpen desberdin guztiak baliagarriak direnik.

Nola egin laburpena?

- **Idea nagusiak** identifikatu. Normalean, paragrafo bakoitzean ideia bat biltzen da.
- Bigarren mailako informazioa, hau da, azalpenak, adibideak eta abar identifikatu eta **baztertu**.
- **Testu-generoa** kontuan izan laburpenean islatzeko.
- **Ideiak ordenatu eta orokortu**, elkartu, eta esaldi bakar baten bidez adierazi.
- **Testua idazteko:**
 - Hizkuntza zehatza erabili behar da, parafrasi eta itzulinguru barik.
 - Ez kopiatu testuaren esaldiak dauden daudenean. Laburpenean esaldiak berregin egin behar dira.
 - Testua berridazten den neurrian, informazioa aukeratu behar da.
 - Informazio nagusia jaso behar du, beraz, ez eman garrantzirik gabeko informazioa, hau da, adibideak eta azalpenak.
 - Ez sartu testuan ageri ez den edukirik.
 - Ez eman iritzi pertsonalik
 - Neurtu informazio kantitatea eta modu orekatuan aukeratu eta banatu; izan ere, arriskua egon daiteke testuaren hasierari lerro asko emateko eta gero laburpena gehiegi luzatzeko, ez du ez luzeegia ez laburregia izan behar.
- **Irakasleak eredu moduan jardun dezake eta erakutsi berak nola egiten duen (irakurri bitartean eta irakurri ondoren faseetan batez ere).**

TESTUAREN LABURPENA EGITEKO KONTROL-ORRIA

- Testuaren egitura aztertu eta gaia identifikatu
- Atal bakoitzaren ideia atera eta testua zatitu eta zati bakoitzari azpigaia ipini
- Paragrafo bakoitzean hitz gakoa/ esaldi nagusia azpimarratu
- Laburtu paragrafo bakoitza esaldi batean.
- Antzekoak diren ideiak bildu esaldi batean (orokortu).
- Ez sartu beharrezkoak ez diren datuak (adibideak, zenbakiak...).
- Ez egin baloraziorik ezta iritzi pertsonalik adierazi ere.
- Ez erabili lehenengo pertsona.
- Ez kopiatu literalki testuaren esaldiak. Hitz edo esaldi horiek zure hitzekin adierazi.
- Ez idatzi esaldi solteak
- Idatzi testu kohesionatua eta paragrafo batean. Testua ulergarria izateko, esaldiak elkarri lotu testu antolatzaile eta lokailuen bidez
- Ahal izanik, testuaren egiturari jarraitu.
- Laburpenak zentzu osoa eduki behar du eta testuaren osotasuna adierazi behar du. Egiaztatu ez dela partziala

HOJA DE CONTROL PARA HACER EL RESUMEN DE UN TEXTO

- Intenta reducir cada párrafo o parte a una idea
- Engloba en una sola frase todas las informaciones que sean similares (generalizar)
- Evita introducir datos irrelevantes: detalles, anécdotas, cifras...
- No introduces opiniones personales o valoraciones
- Evita la primera persona
- No copies frases literales del texto
- No hagas un esquema ni escribas frases sueltas
- Redacta un texto cohesionado, en un único párrafo
- Tu resumen debe tener sentido por sí mismo
- Respeta, en lo posible, en el resumen la estructura del texto
- Recoge en el resumen la globalidad del texto, revisa que no sea parcial

BURU-MAPAK

Laburpenekin eta eskemekin gertatzen den bezala, irakurri aurretik eta irakurri bitartean hainbat jarduera egin behar dira ulermen arazorik ez izateko:

- Irakurri eta ulertu (hitzak, esaldi bereziak...)
- Testua ulertzeko laguntzak prestatu beharko lituzke irakasleak (aurre-ezagutzak azaleratu, adibideak, bideoak, irudiak...)
- Izenburua eta azpi-izenburuak kontuan izan behar dira, izan ere, testuaren atalak markatzen dituzte, eta ideia nagusiak bereizteko erabilgarriak dira.

Ezaugarriak

Buru-mapek irakurritako testuaren gaineko gogoeta eta azterketa sakona eskatzen dute. Ikasleei ulertze prozesuan eta irakasleoi ikasleen ulertze-maila egiaztatzen lagunduko digute. Gaitasun bisual handia dute, hitzak murrizten baitituzte; irakurleek kontzeptu edo ideia konplexuak idatzi behar dituzte eta euren arteko konexioak egin.

Nola egin buru-mapa?

- **Kontzeptuak zerrendatu.** Ez aipatu kontzeptu gehiegi.
- Kontzeptuen arteko **hierarkia ezarri**, mailakatu
- **Identifikatu** denetarik **ideia nagusia**. Ideia nagusia hitz edo kontzeptu nagusi batekin edo irudi zentral batekin irudikatzen da.
- Horren menpeko ideiak irudi zentraletik atera, **adar gisa**.
- Adarkatzeek **irudi edo hitz gako bat izaten dute marraztuta edo inprimatuta**.
- Garrantzi gutxiagoko gaiak adarkatze bakoitzaren "adar" gisa agertzen dira.
- **Loturak ezarri** haien artean eta zehaztu zer harreman duten. Horretarako, lokailuak erabili edo esaldi laburrak (beraz, ondorioz, horregatik, ikusten da ...)
- **Adibideren bat edo beste gehitu daiteke** ideia horietan sakontzeko
- **Irakasleak eredu moduan jardun dezake eta erakutsi berak nola egiten duen**


KONTZEPTU-MAPAK EGITEKO KONTROL-ORRIA

- Testu-tipoa eta testuaren formatua kontuan izan (Informazioa ematen dute).
- Adierazi paragrafo bakoitzak jasotzen duen informazioa izen baten bidez.
- Testuak biltzen dituen kontzeptu guztiak zerrendatu
- Ideia nagusi bat identifikatu eta idatzi (irudia ere txertatu daiteke)
- Inguruan, ideia horri lotutako kontzeptuak idatzi eta lotu, adar gisa.
- Kontzeptu bakoitzak beste ideia batzuk sortzen ditu inguruan. Horiek ere idatzi.
- Loturak ezarri kontzeptuen artean eta zehaztu zer harreman duten (lokailuak, esaldi laburrak baliatu: beraz, horregatik, hala ere, lortzen du...).
- Buru-mapa handitzeko, adarkatze berriak sortzen jarraitu daiteke, alderdi zehatzagoekin
- Kontuan hartu informazioa osatzeko baliagarriak izan daitezkeen adibideak, zenbakiak...

KOTZEPTU-MAPAK EGITEKO TRESNAK

IKT aplikazio ugari dugu, gaur egun, kontzeptu-mapak egiteko. Windowsek dituen grafiko eta diagrametatik hasita, programa erabat sofistikueta bitartean, makina bat aukera daude kontzeptu-mapak egiteko.

Internetek baliabideen artean, sinpleenetako bat BUBBL.US aplikazioa da. Lehen Hezkuntzarako aproposa izan daiteke.



[Gliffy](#) eta [Mindomo](#) aplikazioek

audioak, bideoak edo irudiak estekatzeko aukera ematen dute eta horrela, testuak dakarren informazioa osatu. Hala, ikasleek testua ulertu eta ulertzeaz gain informazioa berrerabiltzeko eta ezagutza berria eraikitzeko aukerak zabaldu egiten dira. Beste aplikazio erabilgarri bat [Spicynodes](#) da.

Eta ordenagailuan bertan lan egin nahi izanez gero, [CMap Tools](#) da erabil daitezkeen beste aplikazio bat.